

2003ko bigarren hiruhilekoan, heriotzak %8 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean

2003ko apirilean, maiatzean eta ekainean 4.571 lagun hil ziren; horietatik %51,5 gizonezkoak izan ziren eta %48,5 emakumezkoak.

2003ko bigarren hiruhilekoan izandako 4.571 heriotzek %8ko hazkundera eragin zuten, iazko aldi beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Lurraldez lurralde, Araban 557 lagun hil ziren, Bizkaian 2.568, eta Gipuzkoan 1.446.

Heriotzen kausa nagusia zirkulazio-aparatuko gaixotasunak izan ziren: 1.390 lagun hil ziren gaixotasun horiengatik (%30,4); ondoren, tumoreak izan ziren bigarren heriotza-kausa eta 1.368 heriotza eragin zituzten (%29,9). Hirugarren, arnas eritasunak izan genituen eta hauek 460 heriotza eragin zituzten hiru hileotan (%10,1).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonezkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

2003ko bigarren hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 16 heriotza urtebetetik beheragoko hurrei egokitu zitzaizkien: 10 neskatori eta 6 mutikori.

2003ko bigarren hiruhilekoko hazkunde begetatiboa positiboa izan zen, 409 lagunek biztanle-irabaziarekin. Herrialdeka, saldo positiboak izan ziren Araban eta Gipuzkoan, 206 eta 267 biztanle irabazi baitzituzten, hurrenez hurren. Bizkaian, oster, heriotzak gehiago izan ziren jaiotzak baino (-64).

**1. taula: Euskal AEko heriotzak sexuka, heriotza-kausaren arabera.
Hiruhilekoen alderaketa.**

	2003ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2003ko 1.hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2002ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
HERIOTZAK	4.571		4.856		4.231	
Gizonezkoak	2.354	51,5	2.574	53,0	2.208	52,2
Emakumezkoak	2.217	48,5	2.282	47,0	2.023	47,8
HERIOTZA-KAUSA						
GUZTIRA	4.571		4.856		4.231	
Tumoreak	1.368	29,9	1.349	27,8	1.292	30,5
Zirkulazio-aparatua	1.390	30,4	1.581	32,6	1.313	31,0
Arnas aparatua	460	10,1	551	11,3	391	9,2
Txegoste-sistema	256	5,6	287	5,9	191	4,5
Istripuak	173	3,8	164	3,4	161	3,8
Gainerako gaixotasunak	924	20,2	924	19,0	883	20,9
GIZONEZKOAK	2.354		2.574		2.208	
Tumoreak	850	36,1	875	34,0	795	36,0
Zirkulazio-aparatua	618	26,3	759	29,5	600	27,2
Arnas aparatua	261	11,1	301	11,7	236	10,7
Txegoste-sistema	141	6,0	162	6,3	93	4,2
Istripuak	128	5,4	120	4,7	115	5,2
Gainerako gaixotasunak	356	15,1	357	13,9	369	16,7
EMAKUMEZKOAK	2.217		2.282		2.023	
Tumoreak	518	23,4	474	20,8	497	24,6
Zirkulazio-aparatua	772	34,8	822	36,0	713	35,2
Arnas aparatua	199	9,0	250	11,0	155	7,7
Txegoste-sistema	115	5,2	125	5,5	98	4,8
Istripuak	45	2,0	44	1,9	46	2,3
Gainerako gaixotasunak	568	25,6	567	24,8	514	25,4

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es